



2026ko sormen egoitzen deialdia





Sormena eta ikerketa sustatzen jarraitzen dugu

El Punto Gunea-k Sormen Egoitzen 7. edizioa ireki du.

Hasierako ikerketa-fasean dauden proiektuak, oraindik hastapenetan edo esplorazio-fasean dauden ideiak. Ikerketa hauek eskuragarri dauden funtsen bidezko laguntza eta finantzaketaren mende egongo dira. Egoitzak 2026ko urtariletik azaroa arte garatuko dira.

4 modalitate irekitzen ditugu.

Pertsona edo kolektibo bakoitzak (30 urtetik beherakoek) modalitate bakarrean proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du.

Deialdia ixteko data: 2025eko urriaren 10ean.

LAU MODALITATE

Zirkua

Egoitza zirku garaikideko artista edo konpainia gazteei zuzendua, ikerketa-lan bat garatu nahi dutenei. Lana aretoan nahiz kalean garatzeko izan daiteke. [Oinarriak 4.orrialdean]

Haur eta Gazteak

6 urtetik gorako haur eta/edo gazteei zuzendutako ikuskizun bat sortzeko ikerketa-ideia bat duten artista, kolektibo edo konpainia gazteei zuzendua. [Oinarriak 5.orrialdean]

Lanzadera

Egoitza konpainia berrientzako gordea, beren lehen ikuskizun profesionala planteatzen duten proiektuentzat. Proposamenak edozein diziplinatakoak eta edozein publikori zuzendutakoak izan daitezke. Lan espositiboak ez dira onartuko. [Oinarriak 6.orrialdean]

Dramaturgia

Egoitza antzerkigile gisa euren prestakuntza zabaldu nahi duten eta hurrei eta gazteei zuzendutako testu dramatiko bat sortzeko interesa duten gazteei zuzendua. Horretarako, esperientziadun dramaturgoen laguntza izango dute, lehen urratsetan gidari izango direnak [Oinarriak 7.orrialdean]



Egoitza diziplina eszeniko desberdinetako sortzaileentzat (antzerkia, performancea, dantza, zirkoa, eszena-hizkuntza berriak eta kaleko arteak).

Profesionalizazio-bidean dauden artista berriei zuzendua, betiere hasierako fasean dauden proiektuetarako.

Proiektuaren berezitasunetara egokitutako egoitza-gunea, sormen-prozesua garatu ahal izateko.

Sormen-prozesuaren laguntza: baliabideak, azpiegiturak eta lanaren hedapena.

Ekoizpenerako laguntza teknikoa, kanpoko begirada artistikoa edo laguntza ekonomikoa.

Oinarriak: Zirkua

1.- Nori zuzendua dago?

Egoitza zirkua garaikideko artista edo konpainia gazteei (30 urtetik beherakoak) zuzendua, ikerketa-lan bat garatu nahi dutenei. Artista hauen lana aretoan zein kalean garatzeko izan daiteke, baina proiektua ikerketaren hasierako fasean egon behar da derrigorrez.

2.- Lanen aurkezpena:

Kolektibo edo artista bakoitzak PDF formatuan aurkeztuko du dosierra (izena_abizena.pdf, gehienez 5 MB), eta honako hauek jasoko ditu:

- Proposamen eszenikoaren sinopsia.
- Fitxa artistikoa.
- Fitxa teknikoa.
- Proiektu artistikoa baloratzeko informazio osoa, barnean argazkiak edo bideoak (kanpo-plataformetarako estekak), egungo edo aurreko lanek proiektua ulertzen laguntzen badute.
- Datu pertsonalak: kide guztien izen-abizenak, harremanetarako datuak eta ibilbide profesional laburra.

3.- Hautaketa-prozesua eta lan irabazleen hautaketa-irizpideak:

- Aurkeztutako dokumentazioa baloratzu proiektuaren merezimendu artistikoa, jatorrizkotasuna, berrikuntza, esperimendazioa eta kalitate artistikoa kontuan hartuko dira
- Proiektuaren bideragarritasuna eta logistikaren egokitasuna El Punto Gunea-n egingo den egoitzaldian zehar, behar espezifikoak barne.
- Proiektuen azterketa egin eta epaimahaiak dagokion eztabaidak egin ondoren, deialdiaren ebazpena jakinaraziko da.

4.- Zer eskaintzen da?

- 2.000 euroko ekarpen ekonomikoa (zergak barne). Ekarpene hau proiektua gauzatzera bideratu beharko da soilik, eta egindako gastuak behar bezala justifikatu beharko dira.
- El Punto Gunea-n lanerako espazioa, 4 asteko egoitza baterako.
- Egoitzaren epeak eta egutegia konpainia edo artista hautatuekin adostuko dira, deialdia ebatzi ondoren.
- Dietak, ostatuak edo El Punto Gunea-ra joateko garraio-gastuak ez daude barne.
- Ikerketa hauek eskuragarri egotea funtsen bidezko laguntza eta finantzaketaren mende egongo dira.

5.- Epaimahaia: Deialdi honen ebazpena zirkuaren eta arte eszenikoaren sektoreko profesionalen osatutako epaimahai batek emango du. Ebazpena gehienez 2025eko abenduan argitaratuko da.

6.- Prozedura:

Interesa duten pertsonen izen-ematea formalizatu beharko dute honako estekan esku-ragarri dagoen formularioaren bidez: <https://forms.gle/2kJ58R1nAAkAqwpMA>

Epea: 2025eko urriaren 10ean, 23:55ak baino lehen.

Zalantzak posta elektroniko bidez bidal daitezke helbide honetara:

elpuntogunea@gmail.com gaian SORMEN EGOITZAK adieraziz.



Oinarriak: Haur eta Gazte

1.- Nori zuzendua dago?

30 urtetik beherako artista, kolektibo edo konpainia gazteei zuzendua, 6 urtetik gorako haurrentzako eta/edo gazteentzako ikuskizun bat sortzeko ikerketa-idea bat dutenentzat.

****Helburua:**** Kalitatezko ikuskizun artistikoen ikerketa sustatzea, haurrak eta gazteak hartzaile dituztenak, eta dimentsio hezitzailea nahiz pertsonen garapen integrala eta balioetan oinarritutako prestakuntza esploratzen dutenak.

Parte hartu ahal izango du ikerketaren hasierako fasean dagoen edozein proiektuk, betiere eszena-hizkuntzekin eta mugimenduko arteekin lotura duen artista edo kolektibo batek garatua baldin bada.

2.- Lanen aurkezpena:

Kolektibo edo artista bakoitzak PDF formatuan aurkeztuko du dosierra (izena_abizena.pdf, gehienez 5 MB), eta honako hauek jasoko ditu:

- Proposamen eszenikoaren sinopsia.
- Fitxa artistikoa.
- Fitxa teknikoa.
- Proiektu artistikoa baloratzeko informazio osoa, barnean argazkiak edo bideoak (kanpo-plataformetarako estekak), egungo edo aurreko lanek proiektua ulertzen laguntzen badute.
- Datu pertsonalak: kide guztien izen-abizenak, harremanetarako datuak eta ibilbide profesional laburra.

3.- Hautaketa-prozesua eta lan irabazleen hautaketa-irizpideak:

- Aurkeztutako dokumentazioa baloratzuz proiektuaren merezimendu artistikoa, jatorrizkotasuna, berrikuntza, esperimentazioa eta kalitate artistikoa kontuan hartuko dira
- Proiektuaren bideragarritasuna eta logistikaren egokitasuna El Punto Gunea-n egingo den egoitzaldian zehar, behar espezifikoak barne.
- Proiektuen azterketa egin eta epaimahaiak dagokion eztabaidak egin ondoren, deialdiaren ebazpena jakinaraziko da.

4.- Zer eskaintzen da?

- 2.000 euroko ekarpen ekonomikoa (zergak barne). Ekarpene hau proiektua gauzatzera bideratu beharko da soilik, eta egindako gastuak behar bezala justifikatu beharko dira.
- El Punto Gunea-n lanerako espazioa, 4 asteko egoitza baterako.
- Egoitzaren epeak eta egutegia konpainia edo artista hautatuekin adostuko dira, deialdia ebatzi ondoren.

- Dietak, ostatuak edo El Punto Gunea-ra joateko garraio-gastuak ez daude barne.
- Ikerketa hauek eskuragarri egotea funtsen bidezko laguntza eta finantzaketaren mende egongo dira.

5.- Epaimahaia: Deialdi honen ebazpena zirkuaren eta arte eszenikoen sektoreko profesionalen osatutako epaimahai batek emango du. Ebazpena gehienez 2025eko abenduan argitaratuko da.

6.- Prozedura:

Interesa duten pertsonak izen-ematea formalizatu beharko dute honako estekan eskuragarri dagoen formularioaren bidez: <https://forms.gle/2kJ58R1nAAkAqwpMA>
Epea: 2025eko urriaren 10ean, 23:55ak baino lehen.

Zalantzak posta elektroniko bidez bidal daitezke helbide honetara:
elpuntogunea@gmail.com gaian SORMEN EGOITZAK adieraziz.



Oinarriak: Lanzadera

1.- Nori zuzendua?

30 urtetik beherako konpainia berrien proiektuak hautatzeko gordetako egoitza, beren lehen ikuskizun profesionala planteatzen dutenentzat. Proposamenak edozein diziplinatakoak izan daitezke eta edozein publikori zuzenduak egon. Lan espositiboak ez dira onartuko, eta proiektua ikerketaren hasierako fasean egon behar da.

2.- Lanen aurkezpena:

Kolektibo edo artista bakoitzak PDF formatuan aurkeztuko du dosierra (izena_abizena.pdf, gehienez 5 MB), eta honako hauek jasoko ditu:

- Proposamen eszenikoaren sinopsia.
- Fitxa artistikoa.
- Fitxa teknikoa.
- Proiektu artistikoa baloratzeko informazio osoa, barnean argazkiak edo bideoak (kanpo-plaformetarako estekak), egungo edo aurreko lanek proiektua ulertzen laguntzen badute.
- Datu pertsonalak: kide guztien izen-abizenak, harremanetarako datuak eta ibilbide profesional laburra.

3.- Hautaketa-prozesua eta lan irabazleen hautaketa-irizpideak:

- Aurkeztutako dokumentazioa baloratzuz proiektuaren merezimendu artistikoa, jatorrizkotasuna, berrikuntza, esperimentazioa eta kalitate artistikoa kontuan hartuko dira
- Proiektuaren bideragarritasuna eta logistikaren egokitasuna El Punto Gunea-n egingo den egoitzaldian zehar, behar espezifikoak barne.
- Proiektuen azterketa egin eta epaimahaiak dagokion eztabaidak egin ondoren, deialdiaren ebazpena jakinaraziko da. Bi proiektu hautatuko dira, bata euskaraz eta bestea gazteleraz.

4. Zer eskaintzen da? Laguntza eta aholkularitza jarduera profesional bat abian jartzeko: jarraipena arlo administratibo eta fiskaletan, finantzaketa bilaketa, aholkularitza sormen-, ekoizpen- eta teknika-lanetan... El Punto Gunea-k, ahal duen neurrian, egokitu egingo du lankidetzak hautatutako proposamenaren ezaugarrien arabera. Proiektua garatzen den bitartean, El Punto Gunea-n lan egiteko espazioa eskainiko da. Modalitate honek ez du laguntza ekonomikorik jasotzen. Finantzaketa lortzeko lan egingo da laguntza-prozesuan zehar. Laguntza horren aprobetxamendua eskatuko da, jarraipen-bileren bidez baloratuta. Proiektu hautatuak lanerako jarrerarik erakusten ez badu, laguntza bertan behera geratuko da.

Hautatutako proiektuak “tutoretza” lehenarekin ekingo dio ****2026ko lehen hiruhilekoan****, eta egoitzaren iraupena ****10 hilabetekoa**** izango da.

5.- Epaimahaia: Deialdi honen ebazpena zirkuaren eta arte eszenikoen sektoreko profesionalak osatutako epaimahai batek emango du. Ebazpena gehienez 2025eko abenduan argitaratuko da.

6.- Prozedura:

Interesa duten pertsonak izen-ematea formalizatu beharko dute honako estekan eskuragarri dagoen formularioaren bidez: <https://forms.gle/2kJ58R1nAAkAqwpMA>

Epea: 2025eko urriaren 10ean, 23:55ak baino lehen.

Zalantzak posta elektronikoki bidez bidal daitezke helbide honetara: elpuntogunea@gmail.com gaian SORMEN EGOITZAK adieraziz.



Oinarriak: Dramaturgia

1.- Nori zuzendua?

30 urtetik beherako gazteei zuzendutako egoitza, antzerkigile gisa euren prestakuntza zabaldu nahi dutenei eta haurrei zein gazteei zuzendutako testu dramatiko bat sortzeko interesa dutenei.

Horretarako, esperientziadun hainbat dramaturgoren laguntza izango dute, lehen urratsetan gidari izango direnak.

Proiektua ikerketaren hasierako fasean egon behar da.

2.- Lanen aurkezpena:

Lanak formatu digitalean aurkeztuko dira. Kolektibo edo artista bakoitzak PDF formatuan (izena_abizena.pdf, gehienez 5 MB) dossier bat aurkeztu beharko du, eta honako hauek bildu beharko ditu:

- Obraren sinopsia.
 - Egituraren azalpena.
 - Pertsonaien deskribapena.
 - Estilo- eta hizkuntza-tratamendua.
 - Beharrezkoa izanez gero, informazio osagarria eta erreferentziak (intereseko obrak aipatu daitezke).
 - Datu pertsonalak eta ibilbide profesional laburra.
- Dossieraren luzera: 8 eta 10 orrialde artean.

3.- Hautaketa-prozesua eta lan irabazleen hautaketa-irizpideak:

- Aurkeztutako dokumentazioa baloratuz proiektuaren merezimendu artistikoa, jatorrizkotasuna, berrikuntza, esperimentazioa eta kalitate artistikoa kontuan hartuko dira
- Proiektuaren bideragarritasuna eta logistikaren egokitasuna El Punto Gunea-n egingo den egoitzaldian zehar, behar espezifikoak barne.
- Proiektuen azterketa egin eta epaimahaiak dagokion eztabaidak egin ondoren, deialdiaren ebazpena jakinaraziko da. Bi proiektu hautatuko dira, bata euskaraz eta bestea gazteleraz.

4.- Zer eskaintzen da?

500 €-ko bi laguntza ekonomiko (BEZa barne), parte-hartzaile edo kolektibo bakoitzarentzat (euskarazkoa eta gaztelaniazkoa). Diru-laguntza hau proiektua gauzatzeko soilik erabiliko da, eta gastuak behar bezala justifikatu beharko dira. Gainera, dramaturgo baten tutoretza izango dute laguntzaileek. Egoitzaren iraupena: 10 hilabete.

Ikerteta hauek eskuragarri dauden funtsen bidezko laguntza eta finantzaketaren mende

egongo dira.

5.- Epaimahaia: Deialdi honen ebazpena zirkuaren eta arte eszenikoen sektoreko profesionalen osatutako epaimahai batek emango du. Ebazpena gehienez 2025eko abenduan argitaratuko da.

6.- Prozedura:

Interesa duten pertsonen izen-ematea formalizatu beharko dute honako estekan eskuragarri dagoen formularioaren bidez: <https://forms.gle/2kJ58R1nAAkAqwpMA>

Epea: 2025eko urriaren 10ean, 23:55ak baino lehen.

Zalantzak posta elektroniko bidez bidal daitezke helbide honetara: elpuntogunea@gmail.com gaian SORMEN EGOITZAK adieraziz.





El Punto Gunea
Nafarroako Sormen Zentroa
Vista bella 13
Aizoain - Nafarroa
www.elpuntogunea.com

LAGUNTZAILEAK

